

GOIERRIKO EKIMENA, S.A.

**2021KO ETEn URTEKO KONTUAK ETA
KONTU – IKUSKARITZA TXOSTENA**

GOIERRIKO EKIMENA, S.A.

2021KO ETEn URTEKO KONTUAK ETA

KONTU-IKUSKARITZA TXOSTENA



AUDYGE

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EMANDAKO ETE URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA TXOSTENA

GOIERRIKO EKIMENA, S.A.ren Akziodunei:

Iritzia

GOIERRIKO EKIMENA, S.A.ren (Sozietatearen) urteko kontuen ikuskaritza egin dugu. Bertan, hauek sartu ditugu: 2021eko abenduaren 31ko ETEn balantzea, ETEn galdu-irabazien kontua eta egun horretan amaitutako ekitaldiaren ETEn memoria.

Gure iritziz, honekin batera doazen ETEn urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, honako hauek islatzen dituzte, zorrotasunez: Sozietateak 2021eko abenduaren 31n zituen ondarea eta egoera finantzarioa, haren eragiketen emaitzak. Horiek guztiek aplikatzekoak diren finantza-informaziorako arauak (ETEn memoriako 2. oharrean identifikatuta daudenak) eta horietan jasotako kontabilitate-printzipio eta -jarraibideak betetzen dituzte.

Iritzia emateko oinarria

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen eta kontu-ikuskaritzak arautzen dituen arautegian oinarritu gara. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak ondoren deskribatuko ditugu, gure txosteneko *ETEn urteko kontuen ikuskaritza-txostenean auditoreak duen erantzukizuna atalean*.

Sozietatetik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen auditoretzan erabili beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna ere barnean sartuta), kontu-auditoretzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz beste zerbitzurik eskaini eta ez da beste egoera edo gorabeherarik gertatu, aipaturiko araudiaren arabera eduki behar den ezinbesteko independentzia zalantzan jarri duenik.

Gure iritzian, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak nahikoa oinarri egokia ematen du, gure auditoretza-iritzia emateko.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak: gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi horretako urteko kontuen auditoretzan akats materiala eragiteko arriskurik esanguratsuenak.

Arrisku horiek osotasunean aztertu dira gure urteko kontuen auditoretzan eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia. Hala, ez dugu arrisku horietako bakoitzari buruzko iritzi berezirik adierazi.





AUDYGE

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

Diru-laguntzen onarpena eta esleipena

Sozietatea bere jardueraren zati bat erakunde publikoek emandako diru laguntzekin finantziatzen da baldintza jakin batzuk betez. Diru-laguntzen emaitzei dagozkien onarpen posible eta diru-laguntzen esleipen ez egokia, ETEn urteko kontuetan eragin handia izan dezakete, gure auditoretzaren alderdi garrantzitsuena izanik.

Alderdi horri aurre egiteko auditoretza-prozedurak honako hauek izan dira, besteak beste, jarduerak eta kontu kontabilitate egokia baita diru-laguntzen onarpen egokia eta emaitzen sustapenaren korrelazioa ere. Gainera, aspektu horri buruzko ebidentzia nahikoa eta egokia lortzeko, prozedura sustantiboak egin ditugu, besteak beste, kanpoko baieztapenak eskuratzea diru-laguntzen emaitzeengatik, laguntza jakin batzuk aztertu ditugu eskatutako baldintzak betetzen direla eta diru-laguntzako jardueretan egindako gastuen analisia ere, eta konpainiak egindako diru-sarreraren arabera esleipenarekin loturiko korrelazioa.

Urteko kontuen inguruan administratzaileek duten erantzukizuna

Honekin batera doazen urteko kontuak formulatzea administratzaileen ardura da, eta Sozietatearen ondarea, finantza-egoera eta emaitzak islatu behar dituzte, zorrotasunez, Espainian erakundeari aplikatzeko zaion finantza-informaziorako arauari eta urteko kontuak iruzurren edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontuak prestatzean, administratzaileen ardura da Sozietateak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko gaitasuna baloratzea. Dagokionean, jarduneko enpresari lotutako gaiak azaldu eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabili behar dute, salbu eta administratzaileek sozietatea likidatzeko eta eragiketarako amaitzeko asmoa badute, edota beste aukera errealistik ez badago.

Auditorearen erantzukizuna urteko kontuen auditoretzaren harira

Gure helburuak: urte kontuek, osotasunean, hutsen baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik ez dutelako arrazoizko segurtasuna lortzea, eta gure iritzia jasotzen duen ikuskaritza txostena ematea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila altua da baina, halere, ez du bermatzen Espainian ikuskaritza-jarduna arautzeko araudiarekin bat egindako auditoretzak beti antzemango duenik akats materialen bat, baldin eta halakorik badago. Akatsak hutsegiteen edo iruzurren ondoriozkoak izan daitezke eta akats materialtzat jotzen dira baldin eta, banaka edo batuta, eta urteko kontuetan oinarrituta, erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragin dezaketen arrazoizko ustea badago.

Espainian kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudiarekin bat, gure iritzi profesionala ezartzen eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu ikuskaritza osoan. Eta, horrekin batera:

- Urteko kontuetan hutsegite baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik egoteko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak ezartzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritzia emateko oinarria eskuratzeko auditoretza-ebidentziak lortzen ditugu. Iruzurraren ondoriozko akats materialik ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondoriozko akats materialik ez





AUDYGE

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak berekin erka dezake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.

- Erakundearen barne-kontrol esanguratsuen inguruko ezagutza eskuratzen dugu, baina ez barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko, baizik eta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatu ahal izateko.
- Erabiltzen dituzten kontabilitate-politikak egokiak eta kontabilitate-balioespenak arrazoizkoak diren ebaluatzen dugu, administratzaileek emandako informazioa aztertuta.
- Administratzaileek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa zuzen erabiltzen ote duten ondorioztatzen dugu eta, eskuratutako auditoretza-ebidentzia oinarri hartuta, Sozietateak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko gaitasunari buruzko zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertaerei edo baldintzei lotutako zalantza materialik ote dagoen ebazten dugu. Zalantza materiala dagoela ondorioztatuz gero, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontuetan azalerazi den informazioari buruz ohartarazteko betebeharra dugu. Eta, azalerazi den informazio hori okerra bada, iritzi aldatua adierazi behar dugu. Gure ondorioak ikuskaritza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Dena dela, gerta daiteke ikuskaritza-txostena egin eta gerorako gertaerek edo baldintzek eragitea Sozietatea jarduneko enpresa izateari utzi behar izatea.
- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta aztertu egiten dugu urteko kontuek transakzio eta azpiko gertaera guztiak egoki jasotzen dituzten, Sozietatearen benetako irudia adierazteko moduan.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke, bai eta auditoretzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Erakundeko administratzaileei jakinarazi dizkiegun arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horietatik garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL, S.L.
R.O.A.C.-eko S0979 zenbakidun partaidea.
Bazkide bat,

Miguel Ángel Iglesias Altolaguirre jauna.
R.O.A.C-eko.10.711 zenbakiduna.

Donostian, 2022ko apirilak 4an.



AUDITORIA Y GESTION
EMPRESARIAL S.L.

2022 Núm. 03/22/01817

Informe de auditoría de cuentas sujeto
a la normativa de auditoría de cuentas
española o internacional

ETEn EGOERA BALANTZEA
ETEn GALDU IRABAZIEN KONTUA

GOIEKI, S.A.
2021 eta 2020ko EKITALDI ITXIERAKO ETEN BALANTZEA (Eurotan)

AKTIBO EZ-KORRONTEA	MEMORIA OHARRAK	2021/12/31	2020/12/31	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	MEMORIA OHARRAK	2021/12/31	2020/12/31
AKTIBO EZ-KORRONTEA		3.091.708	3.171.992	ONDARE GARBIA		1.899.036	862.717
<i>Ibilgetu ukiezina</i>	5	0	0	<i>Fondo propioak</i>	8	1.686.650	641.085
<i>Ibilgetu materiala</i>	5	3.053.703	3.133.796	<i>Kapitala</i>		1.555.670	510.105
<i>Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak</i>	6	5.514	3.514	<i>Ekitaldeko emaitza</i>		130.980	130.980
<i>Epe luzeko finantza-inbertsioak</i>	6	19.394	19.274	<i>Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</i>	11	212.386	221.632
<i>Zerga geroratuen aktiboak</i>	9	13.097	15.408	PASIBO EZ KORRONTEA		523.035	583.929
AKTIBO KORRONTEA		765.256	854.061	<i>Epe luzeko zorrak</i>	7	469.938	528.521
<i>Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako zorrak</i>	6	352.404	270.888	<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>		456.648	515.351
<i>Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik</i>	6-9	35.805	30.757	<i>Epe Luzeko bestelako zorrak</i>	9	13.290	13.170
<i>Bestelako zordunak</i>		316.599	240.131	<i>Zerga geroratuen pasiboak</i>		53.097	55.408
				PASIBO KORRONTEA		1.434.893	2.579.407
<i>Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</i>		412.852	583.173	<i>Epe laburreko zorrak</i>	7	386.962	1.679.464
				<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>	8-11	141.279	993.014
				<i>Epe Laburreko bestelako zorrak</i>		245.683	686.450
				<i>Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe laburreko zorrak</i>	7-12	922.949	818.937
				<i>Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</i>	7	124.982	81.006
				<i>Hornitzaileak</i>	9	91.558	44.653
				<i>Bestelako hartzekodunak</i>		33.424	36.353
AKTIBOA GUZTIRA		3.856.964	4.026.053	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		3.856.964	4.026.053

Erantsitako memoriaren 1-16 oharrak 2021eko abenduaren 31ko egoera balantzean barneratzen dira

GOIEKI, S.A.
2021 eta 2020ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIARI
DAGOKION ETEN GALDU-IRABAZIEN KONTUA (Eurotan)

	MEMORIA OHARRAK	(Zor)/Hartzeko	(Zor)/Hartzeko
		2021/12/31	2020/12/31
<i>Negozio-zifraren zenbateko garbia</i>	10	190.576	184.933
<i>Ustiaeneko bestelako sarrerak</i>	10-11	792.790	721.800
<i>Pertsonal-gastuak</i>	13	-337.336	-313.126
<i>Ustiapeneko bestelako gastuak</i>	10	-568.978	-571.316
<i>Ibilgetuaren amortizazioa</i>	5	-91.015	-93.618
<i>Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen etabestelakoen egozpena</i>	11	11.557	11.557
<i>Beste emaitza batzuk</i>	13	13.226	79.996
USTIAPENENKO EMAITZA		10.821	20.225
<i>Sarrera finantzarioak</i>		10	53
<i>Gastu finantzarioak</i>		-8.519	-17.967
EMAITZA FINANTZARIOA		-8.510	-17.914
ZERGA AURREKO EMAITZA		2.311	2.311
<i>Mozkinen gaineko zerga</i>		-2.311	-2.311
EKITALDIKO EMAITZA		0	0

Erantsitako memoriaren 1-16 oharrak 2021eko abenduaren 31ko galdu irabazi-kontuan barneratzen dira

**2021KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO
EKITALDIKO ETEn MEMORIA**

A handwritten signature in blue ink, consisting of stylized, cursive letters, located in the lower right corner of the page.

1. Oharra.- Jarduera

GOIERRIKO EKIMENA, S.A. (hemendik aurrera Sozietatea) Ordizian eratu zen 1993ko uztailaren 22an.

Goierri osoa eta Goierri osatzen duten udalerriak sustatzeko interesgarri diren jarduerak aurrera eramatea du helburu. Baita enpresa, turismo, negozio, ikerketa eta prestakuntza arloetako sustapenak egitea. Halaber eratzen diren promozio bulegoetarako kontratuak negoziatzea, eta sortze, garapen, sustapen eta kudeaketa lanak aurrera eramatea, baldin bulegoen xedea esandako sozietate-helburu hori bera bada.

2021ko ekitaldian hainbat jarduera egin dira eskualdearen garapen sozio-ekonomikoaren baitan.

Sozietateak jarduera bere egoitza sozialean aurrera eramaten du, Ordiziako Arranomendia Sean kokatuta dagoena.

2. Oharra.-ETEn urteko kontuak aurkezteko oinarriak

2.1. Irudi fidela

Gaineratzen diren 2021 ekitaldiko ETEn urteko kontuak prestatzeko administrazio organoak Sozietatearen kontabilitate erregistroak erabili ditu non kontabilitate plan orokorra onartzen da eta baita kontabilitate alorreko gainontzeko indarrean dauden lege-xedapenak ere enpresaren ondarearen, finantza egoeraren eta sozietatearen emaitzek enpresaren irudi fidela aurkezten dutelarik. Arauemaile esparrua honela finkatuta gelditzen delarik:

1. Merkataritza Kodea eta gainerako merkataritza legedia.
2. E.D. 602/2016 Enpresa Txiki eta Ertaintzako Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen duen 1515/2007 onartutako Enpresa Txiki eta Ertaintzako Kontabilitate Plan Orokorra eta bere sektore egokitzapenak.
3. Kontabilitate Plan Orokorra garatzeko Kontabilitate eta Kontu ikuskaritza Institutuak onartutako derrigorrez bete behar diren arauak.
4. 2010eko uztailak 2ko Errege-Dekretu Legegilearen 1/2010, zeinek Kapitaleko Sozietateen Legearen testu moldatua onartzen duen.
5. Aplikatu daitezkeen gainerako espainiar kontabilitate legedia.

Bestalde, ETEn urteko kontu hauek onartzeke daude Bazkideen Batzar Orokorrean. Aipatutako onarpen honen ondorioz, Sozietatearen Administrazioaileek aldaketa esaguratsurik ez dela egongo aurreikusten dute. 2020ko ekitaldiko ETEn urteko kontuak Bazkideen Batzar Orokorrean onartuak izan ziren 2021eko ekainaren 7ko ohiko bilkuran.

ETEn urteko kontu hauek, ETEn egoera-balantzea, ETEn galdu-irabazien kontua eta ETEn memoria osatzen dituzten dokumentuetan bildutako kopuruak eurotan adierazita daude, dezimalik gabe biribilduta.

2.2 Aplikatutako kontabilitate printzipioak

ETEn urteko kontu hauek lantzerakoan erabilitako kontabilitate irizpide eta printzipioak, memoria honetako 4. Oharrean laburtutakoak dira. Erantsitako finantzen egoera-orrietan eragin esanguratsua duten nahitaez aplikatzeko kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak hartu dira kontuan.

2.3 Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatesteko alderdi kritikoak eta Informazioaren konparaketa.

Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioarekin egiten ditu ETEn urteko kontuak. Ez dago inolako arrisku garrantzitsurik datorren urteko pasibo eta aktiboek balio aldaketa handiak jasango dituztela suposatzen duenik.

Inoiz gaineratzen diren ETEn urteko kontuetan Sozietatearen organoek eginiko estimazioak erantsi dira aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta bertan erregistraturik ageri diren konpromiso batzuk kuantifikatzeko. Funtsean, estimazio hauek ondorengoak dira:

- Ibilgetu materialen eta ukiezinen bizitza erabilgarria.
- Etorkizuneko ordainketen zehaztapena
- Gertaera probabilitatea eta pasibo gertagarrien zenbatekoa

Naiz eta estimazio hauek landu diren datan eskuragarri zegoen informazio ziurrenarekin bilduak izan diren, baliteke etorkizuneko gertaeren ondorioz aldatu behar izatea (gorantz edo beherantz) datozen ekitaldietan. Hau era prospektiboan egingo litzateke aldaketen efektuak dagozkien etorkizuneko galdu irabazien kontuetan aintzatetsiz.

2.4 Informazio konparazioa

Merkatal kodearen 35.6 artikulua arabera, uniformetasun printzipioa aplikatzearen ondorioz eta konparagarritasun betebeharraren ondorioz, 2021eko Abenduaren 31n amaituriko ekitaldiko ETEn urteko kontuak eta 2020ko Abenduaren 31n bukatutako kontuak elkarrekin aurkezten dira.

2.5 Partidak elkartzea

Ez dago balantzean, galdu-irabazien kontuan edota ondare garbiko aldaketen egoera-orrian elkartuta aurkeztu diren partiden banakatzeari buruzko informaziorik.

2.6 Hainbat partidatan banatuta erregistratu diren elementuak

Ez da ondarezko elementurik erregistratuta azaltzen balantzeko bi partida edo gehiagotan.

2.7 kontabilitate irizpideetan aldaketak

Ekitaldi honetan ez da kontabilitate irizpide aldaketarik eman aurreko ekitaldietakoekin alderatuz.



2.8 Akatsen zuzenketa

2021 ekitaldiko ETEn urteko kontuek ez dute barneratzen ekitaldian antzemandako akatsen ondorioz egin beharreko doikuntzarik.

3. Oharra.- Emaitzen banaketa

Sozietateko Administrazioaileek ez dute 2021 ekitaldiko emaitzaren banaketaren proposamenik formulatu, 2020 ekitaldian gertatu zen bezala, emaitza zero eurotako izan baita.

4. Oharra.- Erregistro eta balorazio arauak

Hona hemen, laburbilduta, ETEn urteko kontuak osatzeko aplikatu diren kontabilitate-irizpideak:

a) Ibilgetu ukiezina.

Ibilgetu ukiezineko elementuak (aplikazio informatikoak) erosketa-prezioan baloratu dira, finantza eta konponketa gastuak barneratu gabe. Gastu hauek zuzenean ekitaldiko emaitzetara eramaten dira.

Amortizazioa era linealean egiten da, ondasunen bizitza erabilgarria hasi eta lau urteko epean.

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialeko ondasunak erosketa-prezioan baloratu dira, finantza gastuak eta bizitza erabilgarria luzatzen duten hobekuntzen kostuak kontutan hartu gabe. Hauek, ekitaldiko emaitzetara eraman dira.

Ondasun horien amortizazioa era linealean egiten da, ondasunei kalkulatzeko zaien bizitza erabilgarriak irauten duen bitartean.

Kalkulatutako bizitza erabilgarriak aplikatuta, amortizazio ehuneko hauek lortzen dira:

	Portzentaia
Eraikinak	3%
Bestelako instalazioak	15%
Makineria	10%
Altzariak	15%
Informazioa prozesatzeko ekipoa	25%
Garraio elementuak	15 - 20%

c) Ibilgetu materialaren balio-narriadura

Sozietateak urtean behin gutxienez, hau da, ekitaldiaren itxieran, ibilgetu materialean balio-narriaduragatiko galerak egon diren aztertzen du, zeintzuek murriztu egiten duten aktibo horien balio berreskuragarria, liburuetan jasotako baliotik beherako zenbatekoa. Horren zantzurik egonez gero, aktiboaren balio berreskuragarria kalkulaten da, balio-narriadurak eragin duen galera zehazteko helburuarekin.

2021 ekitaldian ez da ibilgetu materialak sortutako galerarik jaso.

d) Finantza tresnak

Aktibo finantzarioak: Aktibo finantzarioak egoera balantzean barneratzen dira erosketa gertatzen den unean eta hasiera batean duten arrazoizko balioa ematen zaie operazio kostuak ere barneratuz.

Sozietatearentzako mantendutako aktibo finantzarioak sailkatzen dira:

- Kostu amortizatuko aktiboak: zorra adierazten duten baloreak, non balio finkoa edo zehazgarria izan dezaketen eta mugaeguna finkatuta dutenak sartzen dira kategorian honetan. Kopuru jakineko edo jakingarriko kobrantzak ekarriko dituztenak eta merkatu aktibo batean negoziatzen direnak, enpresak mugaegunera arte gordetzeko asmo sendoa eta gaitasuna duenean. Kostu amortizatuaren arabera baloratuko dira geroko balorazioa egitean eta sortutako interesak galdu irabazien kontuan kontabilizatuko dira, interes tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Enpresak emandako hainbat zerbitzuen ordainetan sorturiko kreditu komertzialak dira ere. Hauen kobrantzak zenbateko zehatzekoak dira eta ez dira merkatu aktibo batean negoziatzen. Ondoren, beharrezkoa izanez gero, amortizatutako kostua erabiliz baloratzen dira eta galdu irabazien kontuan egotziko dira sortutako interesak, hauen interes tipoen efektiboen arabera. Hauen dagozkien narriaduragatiko galerak kaudimen-gabezia posibleen arriskuaren arabera adierazten dira.

- Arrazoizko balioko aktibo finantzarioak ekitaldiko galdu irabazien kontura egotzitakoak: Epe motzean saltzeko asmoarekin erositako aktibo finantzarioak dira. Besterentzean izan litezkeen transakzio-kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioak izaten dituen aldaketan ekitaldiko galdu irabazien kontura egotziko dira.

Pasibo finantzarioak: Egoera balantzean arrazoizko balioagatik erregistratzen dira. Balio hontan, transakzioa egiteko unean gertatutako kontraprestazioan zuzenki egotzi litezkeen kostuak barneratzen dira.

Epe laburra eta epe luzea banatzen dituen denbora epea urte batekoa da.

e) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatu ez-itzulgarriak, normalean zuzenean ondare garbian jasotako sarrera gisa kontabilizatzen dira, baldin eta horien emakida ofiziala lortu eta emakida horri dagozkion baldintzak bete direnean edota horiek jaso izanaren inguruan zalantzarik ez dagoenean, eta galdu-irabazien kontuan jasotzen dira, diru sarrera gisa, horietatik eratorritako gastuari lotuta, betiere.

Izaera monetarioko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak jasotako zenbatekoaren arrazoizko balioan baloratuko dira, eta izaera ez-monetariokoak berriz, jasotako aktiboaren arrazoizko balioan.

Ez-itzulgarriak diren diru-laguntza, dohaintzak eta legatuen egozpena emaitzetara, beren helburua aintzat hartuta egiten dira.


Kapital subentzioak ekitaldiko emaitzetara egozten dira, subentzioekin finantzaturako aktiboen amortizazioaren proportzioan, edota besterentze, baja edota balio-zuzenketen kasuan, aktiboen narriaduraren proportzioan.

Ustiapenagatiko diru-laguntzak, galdu irabazien kontura diru-laguntzan ezarritako baldintza guztiak bete direnean ematen dira, eta beraz, diru-laguntzaren kobrantzari buruzko arrazoizko zalantzarik ez dagoenean. Gainera laguntza hauek gastu zehatzak finantzatzeko helburuarekin eman badira, finantzaturako gastu horiek sortu ahala egingo da egozpena.

Jasotako eta kobratzeke dauden diru-laguntzak atxikitutako balantzeko aktiboko" bestelako zordunak, Ogasuna jasotako diru-laguntzengatiko zorduna" epigrafean kontabilizatuta daude (9.oharra).

Emaitzetara egotzi gabe dauden jasotako ustiapeneko diru-laguntzak atxikitutako balantzeko pasibo korronteko "Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe laburreko zorrak" edo "epe laburreko zorrak- bestelako epe laburreko zorrak" epigrafeetan erregistratzen dira jasotako erakundearen arabera, Udaletxe Bazkideak edota beste batzuk badira.

Sozietateak diru-laguntza ofizialak gehienbat, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta hauen menpeko beste enpresa eta erakundeek emanikoak dira. Bazkideengatik jasotako subentzioak, ekitaldiko emaitzaren parte izango dira baldin eta interes publiko edo orokorreko jarduerak finantzatzera bideratzen badira.



f) Zuzkidurak eta kontingentziak

Sozietatearen Administrazioaile Bakarrak ETEn urteko kontuak formulatzerakoan hurrengo desberdintasunak azpimarratzen ditu:

- Zuzkidurak: Egungo obligazioak barne hartzen dituzten hartzekodun saldoak dira. Hauek legalak, kontraktualak, inplizituak ala tazitoak izanda, iraganeko gertakizunetan dute jatorria era sozietatearen baliabideen irteera bat suposatu dezakete. Hala ere, baliabide galera honen baliospena eta mugaeguna indeterminatua da.

- Kontingentziak: Iraganeko gertakizunen ondorioz sortutako obligazioak dira. Obligazio hauen materializazioa etorkizuneko gertaera bat edo batzuei baldintzatua dago, beti ere, gertaera hauek Sozietatearen borondatearen independenteak izanda.

ETEn urteko kontuek zuzkidura guztiak kontutan hartzen dituzte, beti ere obligazioari aurre egin behar izateko probabilitatea kontrakoaren probabilitatea baino altuagoa bada eta obligazioaren arrazoizko baliospena egitea posible izan bada. Bestalde, nahiz eta kontingentziak ez diren ETEn urteko kontuetan aitortzen, memoriako notetan hauen berri eman behar da.

Zuzkidurak gertakariari buruz eta bere ondorioei buruz eskuragarri dagoen informazioa kontutan izanda obligazioa kitatu edota transferitzeko beharrezkoa den zenbatekoaren baliospen hoberearen egungo balioaren bidez baloratzen dira. Obligazio hauek bukatu edota txikiagotuko balira, lehengoratzte totala edota partziala erregistratuko da.

g) Sarrerak eta gastuak

Oro har, sarrera eta gastuen erregistroan sortzapen printzipioa aplikatu da.

Foru Ogasunetik zuzenean berreskuratu ezin daitezkeen zeharkako zergak gastuaren balio gehiago bezala sartu dira.

h) Taldeko enpresekin egindako transakzioak

Enpresa bat taldekotzat kontsideratuko da bi enpresen artean kontroleko erlazioa badago, zuzeneko edo zeharkakoa, sozietate taldeen kasuan Merkataritza Kodearen 42. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera, edo enpresa pertsona fisiko zein juridiko bat edo batzuek batera kontrolatzen badute, edota zuzendaritza bakar baten pean badaude hartutako erabaki edo klausula estatutarioak.

Enpresa bat bazkidea dela kontsideratuko da, aurrerago komentatutakoaren arabera taldeko enpresa bat izan gabe, enpresan duten partaidetzaren ondorioz honen gainean eragin esanguratsua dutenean. Eragin esanguratsua duela kontsideratuko da gutxienez sozietatearen %20ko botu eskubidea badu.

Taldeko enpresa eta bazkide diren enpresez gain, Sozietatearen taldeko hartuko dira Sozietatean era zuzen edo ez-zuzenean botu-eskubidea duten pertsona fisikoak, beraz Sozietatean eragin nabarmena izan dezaketenak, baita hauen familiarteko gertukoena, eta Sozietatean garrantzi berezia duten pertsonak ere (era zuzen nahiz zeharkakoan, Sozietatearen Administrazioaile eta Zuzendariak, beraien familiarteko gertukoena, eta baita aipaturiko pertsona guzti hauen gain eragin esanguratsua izan dezaketen entitateak.

Baita taldeko enpresa kontsideratzen dira Sozietatearekin Zuzendari edo Kontseilariren bat partekatzen duten erakundeak, beti ere pertsona horiek Sozietateen politika finantzario eta ustiapen politiketan eragina badu.

Sozietateak taldeko enpresekiko eragiketa guztiak merkatu balioan egiten ditu. Sozietatearen Administrazioaileek ez dute uste arlo honengatik etorkizunean pasibo garrantzitsurik sortzeko arriskurik dagoenik.

i) Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zergarengatik gastu edo sarrerak barne hartzen du, zerga korranteagatik gastu edo sarrerari dagokion zatia, eta zerga geroratuagatik gastu edo sarrerari dagokion zatia.

Zerga korrantea, ekitaldiko mozkinen gaineko zerga fiskalen likidazioaren ondorioz Sozietatek ordaintzen duen zenbatekoa da. Zergaren kuotari aplikatzen zizkion kenkariak eta bestelako onura fiskalek, atxikipenak eta konturako ordainketak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldian konpentsatzeko galera fiskalak kenduta, zerga korrantearen zenbatekoa txikitzen dute. Mozkinen gaineko zerga korranteen aktibo edo pasiboak, agintari fiskalen aldetik ordaindu edota berreskuratzea espero den zenbatekoen gain baloratuko dira horretarako, ekitaldiaren itxieran indarrean edota argitaratu zain dauden arau eta zerga-tasak erabiliko dira.

Zerga geroratuagatik gastu edo sarrera bat dator zerga geroratuagatik aktibo edo pasiboan inguruan jasotakoarekin eta kitapenarekin. Azken horiek denbora-diferentziak barne hartzen dituzte. Hauek dira: ustez ordaintzeko modukoak edota berreskuratzeke modukoak diren zenbatekoak, aktibo nahiz pasiboek liburuetan jasota duten zenbatekoaren eta horien balio-fiskalaren arteko aldetik eratorritakoak; bai eta, hala badagokio, konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboak eta fiskalki aplikatu ez diren kenkari fiskalengatik kredituak. Zenbateko horiek erregistratzeko, denbora/desberdintasunari edo dagokion kredituari zerga-mota jakin bat aplikatuko zaio, indarreko legeriaren arabera, edota onartuta egon arren, ekitaldiaren amaieran argitaratzeko dagoen araudiaren arabera.

Mozkin korrante nahiz geroratuen zergagatik gastu eta sarrerak emaitzen kontuan jasotzen dira, zuzenean ondare garbiari dagokion partidan jasotzen den transakzio edo gertaeraren bat sortzen denean salbu; halakoetan, aipaturiko partida horretan jaso beharko dira.

Zerga geroratuen pasiboak jasotzen dira zergapeko denborazko diferentzi guztientzat, fondo komertzialeko hasierako errekonozimenduari dagozkionak edo aktibo edo pasibo baten hasierako errekonozimenduari dagozkionak izan ezik, beti ere negozio konbinazio bat ez diren transakzioak badira edo zerga oinarrian eta kontabilitateko emaitzan eraginik ez badu.

Zerga geroratuengatiko aktiboak, hau da, denborazko-diferentzia kenkariekin identifikatuak, bestalde, soilik, aitortzen dira, baldin eta Sozietateak etorkizunean irabazi fiskal nahikoa izango duela uste badu, eta hasieran ezin bada beste aktibo eta pasiborik aitortu, emaitza fiskalari edota kontabilitate emaitzari eragiten ez dion eragiketa batean. Zerga geroratuengatiko gainerako aktiboak (zerga oinarri negatiboak eta konpentsatu gabeko kenkariak), soilik aitortzen dira, baldin eta uste bada, Sozietatek etorkizunean irabazi fiskal nahikoa edota zerga geroratuengatiko pasiboak izango dituela.

Zerga geroratuengatiko aktibo eta pasiboak ez dira deskontatzen, eta aktibo eta pasibo ez-korronte moduan jasotzen dira balantzean: zentzu horretan, berdin dio zein den gauzatze dota likidazio data.


Ekitaldiaren itxieran, erregistratu diren zerga geroratuengatiko aktiboak berriro aztertu eta dagozkion zuzenketak egiten dira, etorkizunean horiek berreskuratzerik egongo den ala ez zalantzak dauden heinean. Itxiera bakoitzean, halaber, balantzean erregistratu ez diren zerga geroratuengatiko aktiboak ebaluatzen dira; horiek era aztertu egiten dira, litekeena baita etorkizunean, berreskuratu eta, ondorioz, mozkin fiskalak lortzea.

2021ko ekitaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren arabera likidatu da.

j) Aktibo eta pasiboen sailkapena: korronteak eta ez-korronteak

Atxikita doan balantzean, saldoak korronte eta ez-korronteetan sailkatzen dira. Korronteen barne sartzen dira, Sozietateak saldu, kontsumitu, ordaindu edota gauzatu nahi dituen saldoak, ustiapenaren ohiko zikloan.

Sailkapen horren barruan sartzen ez diren beste guztiak ez-korronteak dira.



5. Oharra.- Ibilgetu materiala, ukiezina eta ondasun higiezineta inbertsioak.

2021 eta 2020ko ekitaldian ibilgetua materiala osatzen duten partidek honako bilakaera hau erregistratu dute:

	Lur eta eraikuntzak	Instalazio tekniko eta bestelako ibilgetu materiala	Guztira
2020ko HASIERA SALDO GORDIÑA	3.315.964	657.121	3.973.085
Sarrerak eta hobekuntzak		26.620	26.620
Irteerak, bajak edo gutxitzeak		(5.806)	(5.806)
2020ko AMAIERAKO SALDO GORDIÑA	3.315.964	677.935	3.993.899
2020ko HASIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(161.557)	(605.299)	(766.856)
2020ko Amortizazioa	(79.704)	(13.543)	(93.247)
2020ko AMAIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(241.261)	(618.842)	(860.103)
2020ko AMAIERAKO SALDO GARBIA	3.074.703	59.093	3.133.796
2021eko HASIERA SALDO GORDIÑA	3.315.964	677.935	3.993.899
Sarrerak eta hobekuntzak		10.922	10.922
2021eko AMAIERAKO SALDO GORDIÑA	3.315.964	688.857	4.004.821
2021eko HASIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(241.261)	(618.842)	(860.103)
2021eko Amortizazioa	(80.008)	(11.007)	(91.015)
2021eko AMAIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(321.269)	(629.849)	(951.118)
2021eko AMAIERAKO SALDO GARBIA	2.994.695	59.008	3.053.703

"NBF" eraikina bi maileguren berrmean hipotekatuta dago. (7. oharra)

Ekitaldi amaieran guztiz amortizatutako elementuen kostu balioa hurrengoa da

	2021	2020
Instalazioak	426.366	423.335
Altzariak	78.114	78.114
Informazioa prozesatzeko ekipoa	87.316	84.928
Guztira	591.796	586.377

2021 eta 2020ko ekitaldian ibilgetu ukiezina osatzen duten partidek honako bilakaera hau erregistratu dute:

	Aplikazioa Informatikoak	Guztira
2020ko HASIERA SALDO GORDIÑA	4.217	4.217
2020ko AMAIERAKO SALDO GORDIÑA	4.217	4.217
2020ko HASIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(3.847)	(3.847)
2020ko Amortizazioa	(370)	(370)
2020ko AMAIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(4.217)	(4.217)
2020ko AMAIERAKO SALDO GARBIA	0	0
2021eko HASIERA SALDO GORDIÑA	4.217	4.217
2021eko AMAIERAKO SALDO GORDIÑA	4.217	4.217
2021eko HASIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(4.217)	(4.217)
2021eko AMAIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(4.217)	(4.217)
2021eko AMAIERAKO SALDO GARBIA	0	0

2021eko abenduak 31n erabiltzen ari diren eta guztiz amortizatuak dauden ibilgetu ukiezineko elementuen balioa 4.216 eurokoa da (4.216 euro 2020an).

Sozietateak ez du ondasun higiezinetan inbertsiorik.

6. Oharra.- Aktibo finantzarioak

Epe luzera aktiboak zituen finantza tresnak ondorengo taulan aurkitzen dira azpimultzotan sailkaturik:

KATEGORIAK	Epe luzeko aktibo finantzarioak					
	Ondare tresnak		Hartzekoak, deribatuak,		Guztira	
	2021	2020	2021	2020	2021	2020
Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak	5.634	3.634	19.274	19.154	24.908	22.788
Guztira	5.634	3.634	19.274	19.154	24.908	22.788

Taldeko enpresen partaidetzei buruzko informazioa:

2000 urteko ekitaldian, Ordizian kokatzen den eta 3.006 euroko kapitala duen GOIERRI TURISMOA SL sozietatea eratu zen. GOIEKI S.A-k kapital sozialean %72ko partaidetza du. GOIERRIko eskualdeko promozio turistikoa du helburu GOIERRI TURISMOA S.L-k.

2021eko ekitaldi amaieran sozietatearen datu ekonomikoak ondorengoak dira:

	Zenbatekoa
Kapital Soziala	3.006
Ekitaldiko emaitza	0
Guztira	3.006

2021eko ekitaldian, urteko kudeaketa-planeko datuekin bat (Administrazio Kontseiluak onetsitakoa), elkarte honi 95.500 euro (95.000 euro 2020an) eman dizkiote finantzazio ekarpen gisa. Diru hori ustiaketa-gastu gisa galdu-irabazien kontuan erregistratu da.

Epe laburrera aktiboan zituen finantza tresnak ondorengo taulan aurkitzen dira azpimultzotan sailkaturretik:

KATEGORIAK	Epe laburreko aktibo finantzarioak			
	Hartzekoak, deribatuak, bestelakoak		Guztira	
	2021	2020	2021	2020
Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak	352.404	270.888	352.404	270.888
Guztira	352.404	270.888	352.404	270.888

Kobratzeko partidak eta maileguak bezero eta zordunei dagozkie bereziki, azken hauen artean administrazio publikoa da zordun nagusia.

7. Oharra.- Pasibo Finantzarioak

Epe luzera pasiboan zituen finantza tresnak ondorengo taulan aurkitzen dira azpimultzotan sailkaturretik:

KATEGORIAK	Epe luzeko pasibo finantzarioak					
	Kreditu erakundeekiko zorrak		Deribatuak, bestelakoak		Guztira	
	2021	2020	2021	2020	2021	2020
Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak	456.648	515.351	13.290	13.170	469.938	528.521
Guztira	456.648	515.351	13.290	13.170	469.938	528.521

2017ko abenduaren 29an Sozietateak bi hipoteka-mailegu formalizatu zituen 800.000 eurotan bakoitza. 2021eko abenduak 31n hipoteka-bermearekiko zorrak 598 mila eurokoak dira. (5. oharra).

Epe laburrera pasiboan zituen finantza tresnak ondorengo taulan aurkitzen dira azpimultzotan sailkatuak:

KATEGORIAK	Epe laburreko pasibo finantzarioak					
	Kreditu erakundeekiko zorrak		Deribatuak, bestelakoak		Guztira	
	2021	2020	2021	2020	2021	2020
Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak	141.279	993.014	1.293.614	1.586.393	1.434.893	2.579.407
Guztira	141.279	993.014	1.293.614	1.586.393	1.434.893	2.579.407

Ordaintzeko partidak eta zorrak, hornitzaile, administrazio publiko eta aurreko ekitaldietan bazkideak diren udaletxeek egindako ekarpenei dagozkie.

Ekitaldi itxieraren hurrengo bost urteetako bakoitzean mugaeguneratuko diren zenbatekoak eta mugaeguneratu arte geratzen den gaineroak hauek dira:

Zorrak	Epemuga urteetan						guztira
	1	2	3	4	5	5.tik aurrera	
Kreditu-erakundeekiko zorrak	141.279	33.815	34.134	34.457	34.783	319.459	597.927
Bestelako zorrak	245.683					13.290	258.973
Taldeko enpresekiko zorrak	922.949						922.949
Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestaelako kontuak							
Hornitzaileak	91.558						91.558
Bestelako hartzekodunak	33.424						33.424
Guztira	1.434.893	33.815	34.134	34.457	34.783	332.749	1.904.831

8. Oharra.- Fondo propioak

2021ko ekitaldian zehar fondo propioek honako bilakaera izan dute:

	Saldoa		Saldoa
	20/12/31	Gehikuntzak Murrizketak	
Kapital soziala	510.105	1.045.565	1.555.670
Legezko erreserba	268		268
Beste erreserba batzuk	130.712		130.712
2020ko ekitaldiko banaketa	0		0
2021eko ekitaldiko emaitza	0		0
Guztira	641.085	1.045.565	0 1.686.650

2021eko Abenduaren 31n, kapital soziala 6,01 euroko 258.847 akzio izendunek osatzen dute, 1.555.670 euroko kapital soziala eratuz. Akzio guztiak ondoren aurkezten diren udalek guztiz izenpetuta aurkitzen dira:

Udala	Akzio kop.	Partaidetza %tan
Altzaga	1.052	0,41%
Arama	1.205	0,47%
Ataun	9.807	3,79%
Beasain	81.592	31,52%
Gabiria	2.871	1,11%
Gaintza	752	0,29%
Idiazabal	13.548	5,23%
Itsasondo	3.771	1,46%
Lazkao	33.187	12,82%
Legorreta	8.408	3,25%
Mutiloa	1.474	0,57%
Olaberria	5.559	2,15%
Ordizia	59.666	23,05%
Ormaiztegi	7.658	2,96%
Segura	8.415	3,25%
Zaldibia	9.479	3,66%
Zegama	8.928	3,45%
Zerain	1.475	0,57%
Guztira	258.847	100

2021eko uztailaren 28an Sozietateak eskritura publikoan 1.045.566 euroko kapital-gehikuntza bat aurrera eraman du. 960.001 euro bazkideek egindako ekarpenekin eta 85.564 euro udalek sozietatearen aurka duten kredituaren kontura kapitala biztanleriaren egungo banaketari egokitzeko. Zeraingo Udaletxeak sozietatearen aurka zituen kredituaren kontura egiten ditu kapital-gehikuntzak, dirutan ekarpenak egin gabe, Covid-19aren ondorioz daukan egoera finantzario larriagatik.

2021eko abenduaren 31n 22.901 eurotako ekarpenak ordaintzeke daude. Zaldibiako Udaletxeak 17.852 euro eta Gabiriako Udaletxeak 5.319 euro hurrenez hurren.

9. Oharra.- Egoera fiskala.

Herri-administrazioekin erlazionatutako saldoak honela zeuden 2021 eta 2020ko abenduaren 31n:

	2021	2020
Saldo zordunak	277.400	233.394
- Herri-administrazioak, diru-laguntzengatik zordun	164.627	153.700
- Foru Ogasuna, BEZagatik zordun	97.236	64.673
- Foru Ogasuna, atxikipen eta konturako ordainketengatik zordun	15.537	15.021
Saldo hartzekodunak	23.872	23.180
- Foru Ogasuna, egindako atxikipenengatik hartzekodun	15.899	16.981
- Gizarte Segurantzako erakundeak/Geroa BGAE	7.973	6.199

*** Herri-administrazioak, diru-laguntzengatik zordun**

2021eko abenduaren 31ko egoera-balantzeko epigrafe honetan jaso dira zenbait egitasmo finantzatzeko hainbat erakundeek eman dituzten diru-laguntzen zenbatekoa; izan ere, ekitaldia ixtean kobratzeko zeuden. Hona hemen erregistratutako balioak nola dauden xehatuta:

Erakundea	Emate Urtea	Saldoa 21/12/31	Kontzeptua
Gipuzkoako Foru Aldundia	2020	29.200	Berrabiarazi
Gipuzkoako Foru Aldundia	2020	4.935	Gobernantza
Gipuzkoako Foru Aldundia	2021	50.000	Energia
Gipuzkoako Foru Aldundia	2021	35.886	Gobernantza
Gipuzkoako Foru Aldundia	2021	14.965	Elkar Ekin
Gipuzkoako Foru Aldundia	2021	25.000	Gipuzka digitala
Eusko Jaurlaritza	2021	4.643	Omic
Guztira		164.627	

*** Sozietateen gaineko Zerga**

Kontu emaitza Sozietateen gaineko Zergaren oinarri zergagarriarekin bat dator.

Konpentsatzeko dauden oinarri zergagarri negatiboei dagokien zenbatekoa honako hau da:

Urtea	Zenbatekoa	Konpentsatzeko azken urtea
2003	167.717	2033
2004	157.183	2034
2005	58.739	2035
2006	128.478	2036
2007	1.513	2037
2014	5.413	2044
	519.043	

2021 eta 2020ko ekitaldietako abenduak 31n, atxikitutako balantzeko "zerga geroratuen pasiboak" epigrafean jasotzen diren saldoak, Sozietateak jasotako diru-laguntzen denbora diferentziei dagozkie bere osotasunean (11. oharra).

Zergen kitapenak ezin dira behin betikotzat jo, harik eta zerga-agintariek berrikusi arte edo lau urteko preskripzio-epaia igaro arte, baltzua ikuskatu gabe Sozietatea eratua izan zenetik (1.993 urtea).

10. Oharra.- Sarrerak eta gastuak

Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapeneko beste sarrerak

"Negozio-zifraren zenbateko garbia"-n bazkideak diren udaletxeei fakturatutako zerbitzuak eta hirugarrengeoi fakturatutako zerbitzuak jasotzen dira.

"Ustiapeneko beste sarrerak" sozietateak bere jarduera aurrera eramateko Administrazio publikoek emandako diru-laguntzak jasotzen dira.

Saldo hau honela dago xehatuta:

	Zenbatekoa	
	2021	2020
Txekin	0	12.823
Industria 4.0	16.667	20.000
Energia plana	48.680	53.332
New Bussines Factory 2017	0	5.305
Gipuz-Lan Eskualdearen sustapena	0	104.818
Gobernantza	8.723	6.205
Value Share	36.025	3.966
Enplegu plana	0	20.000
Adinberri-Goiosasunlab	5.965	3.212
Berrabiarazi	43.800	0
Ehungintza taillerra	76.543	0
Omic	21.124	15.128
Goierriko Herrien Ekintza	71.904	89.856
Goilan gunea	37.000	24.000
Hiruko Fundazioa	104	78
Ideien Lehiaketa -Enpresak	7.500	9.000
Innovasque	1.000	2.450
Udaletxe akziodunak - Berrabiarazi	74.223	0
Udaletxe akziodunak - Gizarte arloa	44.440	44.038
Udaletxe akziodunak - Ateak ireki	10.000	0
Udaletxe akziodunak - urteko ekarpenak	289.093	307.589
Udaletxeei fakturatutako zerbitzuak	2.067	2.008
Hirugarrengeoi fakturatutako zerbitzuak	188.510	182.925
Guztira	983.366	906.734
* Ustiapeneko bestelako gastuak		
	2021	2020
Kanpoko zerbitzuak	567.062	557.829
Bestekako zergak	1.916	13.487
Guztira	568.978	571.316

11. Oharra.- Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Kapitalezko diru laguntzekin erlazionatutako saldoak honakoak dira 2021eko abenduaren 31n:

Programa	Saldoa 20/12/31	Sarrerak/ Irteerak	Sarreretara egozpena	Zerga efektua	Saldoa 21/12/31
Objetivo II (G.F.A.)	71.232		5.557	1.111	66.786
NBF Instalazioak (Goilan)	150.400		6.000	1.200	145.600
Guztira	221.632	0	11.557	2.311	212.386

Sozietateak ere 2021 ekitaldian 792.790 eurotako ustiapeneko diru-laguntzak jaso ditu (721.800 euro 2020 ekitaldian), zeinak galdu-irabazien kontuko "Ustiapeneko bestelako sarrerak" epigrafean jasota dauden. Erakunde publiko ezberdinek emandako diru-laguntza hauek interes publiko edo orokorreko programa eta jarduera konkretuak finantzatzen dituzte. (10. Oharra).

Kobratzeke dauden ustiapeneko diru-laguntzak 9. oharren zehaztu dira.

Bestalde, Sozietateak atxikitutako 2021eko abenduak 31ko balantzeko "epe laburreko zorrak- Bestelako epe laburreko zorrak" epigrafean 244.388 euroko (237.517 euro 2020 ekitaldian) saldoa jasotzen da, non urtean gauzatu ez diren gastuen diru-laguntzak aurkitzen diren.

2021eko abenduaren 31ean Erakunde Publikoen arabera aztertutako saldoak ondorengoak dira:

Erakundea	Emate urtea	Zenbateko geroratu	Kontzeptua
Gipuzkoako Foru Aldundia	2017	10.608	New Bussines Factory
Gipuzkoako Foru Aldundia	2019	10	Value Share
Gipuzkoako Foru Aldundia	2020	29.200	Berrabiarazi
Gipuzkoako Foru Aldundia	2020	4.935	Gobernantza
Gipuzkoako Foru Aldundia	2021	35.886	Gobernantza
Gipuzkoako Foru Aldundia	2021	59.861	Elkar Ekin
Gipuzkoako Foru Aldundia	2021	65.000	Gipuzkoa digitala
Gipuzkoako Foru Aldundia	2021	33.846	Leverage
Eusko Jaurlaritza	2020	5.043	Omic
Guztira		244.388	

12. Oharra.- Loturadun alderdiekiko eragiketak

Ekitaldian zehar loturadun alderdiekin izandako eragiketak hauek izan dira:

Erakundea	Egindako Zerbitzuak		Jasotako Zerbitzuak		Proiektuetarako Ekarpinak		Urteko Ekarpinak		Egindako Ekarpinak	
	2021	2020	2021	2020	2021	2020	2021	2020	2021	2020
Udaletxe akziodunak	2.067	2.008			203.698	54.038	399.127	443.475		
Goierri Turismoa				10.000					95.500	95.500
Guztira	2.067	2.008	0	10.000	203.698	54.038	399.127	443.475	95.500	95.500

Sozietateak atxikitutako 2021eko abenduak 31ko balantzeko "taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe laburrerako zorrak" epigrafean 922.949 euroko (818.937 euro 2020 ekitaldian) saldoan sarreretara egotzi gabeko akziodun diren Udaletxeek egindako ekarpinak jasotzen dira.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldietan ez da ordainsari edota bestelako prestaziorik sortu Sozietateko Administrazioaileen alde, ez eta goi zuzendaritzako karguen alde ere.

Bestalde 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, ez zegoen aurrerakinik edota krediturik, ez eta Administrazioaileen pentsio edota bizi-aseguruen arloko betebeharririk ere, eta azken horiek ez dute euren gain betebeharririk hartu berme-titulu gisa.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldietan Sozietatearen Administrazioaileek adierazten dute ez, beraiek ezta beraiekin loturiko pertsonen ere, ez dutela gatazka-egoerarik izan (ez zuzenik ez zeharkakorik) Sozietatearen interesekin.

13. Oharra. - Bestelako informazioa

2021 eta 2020ko ekitaldietan batez besteko langile kopurua 6,83 eta 4,57 koa izan da hurrenez hurren.

14. Oharra.- Ingurumenari buruzko informazioa

Sozietatearen jarduera kontuan izanik, sozietateak ez du ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei dagokienez adierazgarriak izan daitezkeen ingurumen-arloko erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornidurarik eta kontingentziarik. Hori dela eta, memoria honetan ez da ingurumen-arloko informazioaren inguruko berariazko banakatzerik egin.

Sozietatean ingurumenari loturiko izan litezkeen kontingentziak, kalte ordainak eta bestelako arriskuak ondo estalita daude harpidetuta dituen erantzukizun zibileko aseguruaren polizekin.

15. Oharra - Hornitzaileei egindako ordainketa geroratuei buruzko informazioa. Uztailak 5eko 15/2010 legearen, "Informazio beharra", hirugarren xedapen erantsia.

Berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen eta 2004/3 legea eguneratzen duen uztailak 5eko 2010/15 legearen arabera, sozietateari dagokion ordaintzeko epe maximoa 60 egunekoa da.

Kontu Ikuskaritza eta Kontabilitate Institutuak 2016ko urtarrilak 29ko bere ebazpenean agintzen duen informazioa honakoa da:

Ordaintzeko batez besteko epea	2021	2020
Ordaintzeko batez besteko epea (egunetan)	22	20

16. Oharra- Itxiera ondorengo gertaerak

ETEen urteko kontu hauek egin diren egunean, ez da gertatu ETEen memoriaren oharretan azaldu ez den gertakari esanguratsurik.



MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL jaunak, nortasun-agirian 44.163.200-A zenbakia duenak, eta JOKIN GARMENDIA ASURABARRENA jaunak, nortasun-agirian 72.436.908-H zenbakia duenak, hurrenez hurren GOIERRIKO EKIMENA, S.A-ko lehendakari eta idazkari direnez, 2021eko ekitaldiko ETEn urteko kontuak eratzen dituzten orri guztiak izenpetu dituztela adierazten dute.

ETEn urteko kontuak honako hauek osatzen dituzte:

- 21.12.31ko ETEn balantzea (1.go orrialdea)
- 2021eko ekitaldiko ETEn galera eta irabazien kontua (2. orrialdea)
- 2021eko ekitaldiko ETEn txostena (3. orrialdetik 20.ra)

Gainerako administratzaileek oniritzia eman diote ETEn urteko kontu horien formulazioari. Horretarako, agiri hau izenpetu dute.

Izpta.: Eztitxu Mugica Mariezkurrena
NAN: 72.526.897-P



Izpta.: Joseba Mikel Olano Guembe
NAN: 72.448.031-D



Izpta.: Eva Alvarez Atanes
NAN: 72.500.097-A



Izpta.: Adur Ezenarro Agirre
NAN: 44.142.431-A




Izpta.: Miren Alazne Sukia Galparsoro
NAN: 15.957.267-M




Izpta.: M.Carmen Arruabarrena Esnaola
NAN: 15.954.891-K

AUSENTE

Izpta.: Kepa Joseba Zubiarrain Erauskin
NAN: 34.096.652-A



Izpta.: Martin Aramendi Arana
NAN: 72.436.387-A



Izpta.: Aitziber Meabe Sorazu
NAN: 30.564.116-Z





Ordizian, 2022ko martxoak 28an.